Abbé OXANDABARATZ
Aumônier MRJC
Chez les missionnaires
64. HASPARREN.

Otsailaren 27.a

Jaun kalonjea,

Entzun ditudan solas batzuen ondotik, nahi dautzut ene sendimendua hitz laburrez salatu.

Ainitz jende — eta hetan apez frango — pleini dira azken aste hotan "Herriak" hartu duen itxuraz. Ez dute onhartzen, gure herrietan hainbertze bazter nahaste ekartzen duen bozka denboran, hain aldarrikari ager dadin Eskual Herri guzientzat dugun kazeta eskualdun eta giristino bakarra.

Guk, hemengo apezek, bi gizonak berdin errespetatzen baititugu eta ahala egiten, gure bilkuretan eta solasetan, bat ala bertzea sustengatzen duten giristinoeri erranez errespetu ekar dezaten elgarri, gizonki ariz, gezurrak baztertuz, jendetasuna kolpatzen duten manerak utziz, idurimena badugu "Herria" ez dela sail hortan guk nahi bezala ari. Izatekotz herra-bide eta gaixtakeria xirikatzale zonbait agertu egun hotan.

Hala nola – azken hau aipatzeko bakarrik – Donapaleuko bilkuran ziren apezek erran daukute ez direla gauzak joan den asteko Herriak eman dituen bezala pasatu. Bertzalde, Oragarreko, Domintxaineko eta Labetzeko artikuluak toki beretik direla hirurak ez omen da dudarik.

Badakigu Domintxainen zoin makur den Herria azken bozken ondotik, iduri zaut etzutela ~~hautako~~ horren beharrik.

Zendako ez argi izaiteko irakurtzaileen izpirituak girixtinoek, sail hortan ditugun eginbidez, Konzilioak hortarako eman dauzkigun erakaspenez baliatuz. "Herriak" behar luke izan denen gogo bihotzen altxagarri eta hazkurri, ez eta gizonen artean hautsi egile, pizatzaile, baten goratzeko bertzeak apalduz.

Badut beldurra, hola ariz, galduko dugula irakurle frango bazterretan bozken ondotik.

Barka zadazu ene ausartzia.

Horrengatik ene agurrik beroenak hartu ditzazu egiten duzun lan paregabearendako.

Larzabal

Maiatzaren 8-an

Abbé J.-B. OXANDABARATZ
Aumônier M. R. J. C.
HASPARREN - 64
Tél. 20

Adixkide jaun kalonjia,

Badakikezu beharbada eskualdun gazteriaz arta hartzen dutenek egiten dutela urte guziz eskual-dun kalendrierra. 8.500 hedatzen ditugu hemengo familietan eta Parisen, Bordalen, Amerikatan bizi diren eskualduneri. Nahi ginuke egun bakotxean ezartzen dugun hitz-ño hura izan dadien ahala mamitsu eta gustagarri.

Hortako dautzut zuri dei egiten. Guk baino gehiago irakurtzen baituzu eta gogoeta ibiltzen, igor ahal bazinazkiot zonbait hitz labur,

Zure hautura, edozoin gaiez, ekaina undarreko.
Aski goiz hasten gira lan hortan, urria delakotz.

Aintzinetik milesker derautzut.

Eta bihotzetik agur bero bat, errespeturekin.

D. Landart